

EUSKERAZKO ITZALDIAK

Araba'ko Nanclares ondoan, ba dago Ollabarre esaten dioten erri koskor bat. Gauza ikusgarri gutxi du erriak. Nekazari-etxe batzuek Eleiz inguruan bilduta, gari sallak an ta emen sakabana-turik, aize zorrotza neguan, eta udako eguzkitan bero galda, legorra ta lur egarria ugari.

Nekazari zintzo ayek, asko maite zuten beren apaiza, argia, jakintsua ta biotz onekoa zalako. Orduan ogei ta amar urte, errira eldu zanean, bertako auzokoak laister igarri zioten alako doai berezi bat, apaiz berriari. "Ollabarre baño erri aundiagoetarako dek au —esaten zuten berak—; ez dek emen luzaro egongo". Baña oker zeuden. Gazte oraindik bertara eldu ta bertan gelditu zan, larogei ta lau urte bete-ta, il arteraño. Orain urtebete il zan. Inñun ez degu bere eriotzaren berri ikusi, ta euskera-zale geranok, ba degu, alaere, Ollabarreko apaiaz zerbait esan bearra. Zorretan gaude berarekin eta nik zor ori garbitu nai nuke nolabait.

Jose Ventura Landa Jauna, Ollabarreko apaiza, Gipuzkoarra zan. Itziar'ko semea. Oraindik oso gazte zala, Deba'ko Bikario egin zuten eta andik laister, Bergara'ko Arzipreste. Gizon ikasia, euskal izlari bikaña, ongi ezaguna —gero ta geyago— Gipuzkoa'ko baztarretan. Eta bat batean, osasunerako aize garbiagoak bear zitueta ta, orra, berak nai-ta, Bergara'ko Arziprestia, Ollabarreko apaiz biurtua!

Ollabarrera juan zan Landa jauna, ango nekazari beartsuen artean bizi izatera. Ainbeste euskal itzaldi eder egin zituenak, ez zuen arrezkero euskal entzulerik izango. Izlari euskalduna, ixildu zan, betiko, baña bere euskal itzaldiak, ez dira zearo galdu. 1907'garren urtean, Bilbao'ko Elexpuru anaien etxean, argitaratu zuen Landa jaunak, "Euskerazko Landa-rak. Euskerazko Itzaldiyak. Gure Zeruko Ama Maria Euskeraz goratuba" deritzaion liburu bizi, irakurgarria. Ogei ta amar itzaldi ditu, berreun ta ogei ta bat orrialdetan banatuta. Mujika'tar Mateo jaunak, oraindik "Ca-

nonigo lectoral" zala, egin zuen Itz-aurrea, erderaz, eta Mujika jaunari eskeñita dago liburua: "Euskerazko Landa-rak, izentzat" ipiñi diotan lan chiki au, donkitzen diyot, biotzetik alaere, ne-
" re Meza berriyan lenbiziko itzaldiya egoki egin zuan lagun mai-
" te, euskaldun azkar ta Apaiz jakintsu Beasain-go seme Mugica-
" -tar Mateo jaunari. Jose V. de Landa. Deva-ko Animazaya.
" 1906'garren urtian".

Landa jaunaren itzaldiak, guztiz egoki ta atsegiñak dira. On-
do asmatuak eta ondo neurtuak. Bere euskera berriz, erreza, le-
guna, aberatsa, etorri aundiko iztunari dagokion erakoa. 1906'ga-
rren urtean ez zan itz egiten, orain itz egiten dan tankeran. Ez
euskeraz, ezta erderaz ere. Ba dira Landa jaunaren itzaldietan,
gaur erdal-usaidunak iruditzen zaizkigun esakera batzuek. Baña
esakera oyek, neurriz erabiltzen ditu berak, izkera gozatu ta arin-
du naiaz bezela.

Bere liburua azaldu zanean, ogei ta amasei urte zituan Debako
Bikarioak. Nolako etorkizuna berea! esango zuen batek baño ge-
yagok, apaiz gazte, argiaren sasoi ikusita. Baña Landa jaunak, ez
zituen munduko txalo ta txuriketak aintzakotzat artzen. Gaztea
izan arren, ongi ezagutzen zuen lur ontako gauza guztien uske-
ria. Ona emen, bestela, bere itzaldietako zati bat: "Munduak es-
" keintzen digun atsegiña, gezurrezkoa da, nere kristau biotze-
" koak. Mundu arro ta nabarmena, bere aundi-uste guziarekin
" oraindaño koan gure animaren etsai gaizto bat besterik ez da
" izan, len ala izandu da, ondoren ere alatsu izango da. Munduak
" illuntzen dizkiyo kristauari animako begiak, goi aldean dadu-
" kan zoriontasun oso osoa ikusi ez dezan; munduak loitu nai di-
" tu gure biotzak, gizona baño utsago diran gauza ezer-ezakiñ:
" munduak berdindu nai giñuzke lau ankako abereakin, eskeñiyaz
" gorputzeko gozagayak; lurra ez daduzka lurreko ondasunak
" besterik, aragi ustelkor au piska bat txoratzen dituen gauzak".
" Onelako atsegiña gorputz-animak daduzkan gizonarentzat, edo
" ez da atsegiña, edo ala izanik, gezurrezkoa da. Au ondo daki
" nork berak, bein baño geiagotan arkitu ditugulako arantza beltz
" luze-zorrotzak, biotza odoldu diguten printzak, atsegiñ poza bi-
" llatzea uste genduan gauzetan. Oh, emateko baleude, eman di-
" tugun zenbait oinkada, emankizun geldituko lirake noski!"
" Itxasoko olatuen antzera dabill, nere kristau maiteak, munduko
" ondo-izatea; odehyak bezela aldatzen dira lurreko ondasunak,
" nekez etorri, berandu arkitu, ta aguro dijuazkiyo gizonari, bio-
" tzik atsegindu gabe iraun duten sasoi apurrian." "Oh, ze begi

"negartuakin ziyon Salomon jakintsuak: "vanitas vanitatum, et
"omnia vanitas", utsaren utsa eta dana utsa".

"Nik ez dakit zer esango duten —Mujika jaunak bere itzaurrean dio— erruki-gabe euskaltzake zorrotzak, baña berak beren iritzia bota bitartean, utzi nazazute Debako Bikarioari, Gerriko, Asstarloa, Agirre, Axular, Lardizabal, Unzueta, Iturzaeta, Mendiburu, Mogel, eta beste onelako euskaldun maisuen artean, leku bat ematen".

Ondo irabazia du, bai, leku ori, Jose Ventura Landa jaunak! Goizegi ixildu zan, baño Debako Eleiz korupean, bere euskera gozoaren soñuak, ez dira oraindikan itzali.

Jose Maria LOJENDIO